

(H)ILBELTZA

EUSKAL NOBELA BELTZAREN ASTEA

BAZTAN

ILBELTZAREN 20TIK 26RA

Fskuorria tolestu eta sakelan sartu zuen.
 Karrikan barna jarraitu zuen.
 Eta ez zuen espero.
 Inondik inorat. Hura ikusi eta lasterka abiatu zen. Izututa. Arnasestuka. Ilun. Beltz. Beltza. Literatura. Beltzean. B-n. Baztanen. Baztandik. Baztan. Euskal Herria. Ilbeltzean. (H)ilbeltza. Beltza iluna. Beltza argia. Beltzak. Euskaraz. Landa eremua. Periferia? Ikuspuntuak. Idazleak. Idazleekin solasean.

Itzulpenak. Klasikoak. Beka. Zinea. Beltza. Dena beltza. Mahai-inguruak. Otorduak. Aurkezpenak. Susmagarrien gaua. Gauak. Ibilaldia. Ipuin antzeztua. Beltza. Irakurraldia.

Eta tiroa aditu zuen.
 Eskua zaurian paratu zuen.
 Odola.

2020ko (H)ilbeltzaren egitaraua pasatu zitzaion burutik hil baino lehen. (H)ilbeltza galduko zuen. Zuk?




www.ilbeltza.eus

(H)ilbeltzarekin aski ez, eta urtean barna gure web orrian publikatzen ditugu handik eta hemendik biltzen dugun informazioa, literatura beltzarekin erlazionatua beti ere.

(H)ilbeltzan berean izaten ditugun solasaldiak edo gonbidatuak web orritik pasatzen dira maiz, elkarrizketaren bidez edo generoa aletuz, edo beltzometroari erantzunez. (

(H)ilbeltzarat etorri gabe sobera urrun ibili ez den jendea berdin. Ez da bakarrik beltza, ez da bakarrik literatura; hilabetetik hilabeterat osatzen dugun (H)ilbeltza bera da web orria.

Plazer baduzu egiguzu bisita!



1.- Itzultzeko orduan zer egin zaizu zail eta zer erraz?

Euskarari, nik uste, deskriptiboa den orok berebiziko arazoak sortzen dizkio. Zintzoa izatera, xehetasunekiko zorrotz izateak hamaika izerdi isurarazi dizkit. Arazoaren sorburua bikoitza izan daiteke: batetik, itzultzailearen trebeziarik eza ezkuta daiteke, eta, bestetik, euskaraz sorturiko literaturak deskripzio zehatzetarako daukan tradizio urria, itzulpenetan bestelako joerak aurki badaitezke ere.

Deskripzioen zailtasunekin lotuta, adjektiboen erabilera dago. Euskarak, ingelesarekin alderatuta, oso adjektibo gutxi dauka, eta sarritan ez da batere erraza adjektibo egokiarekin asmatzea. Gainera, zenbaitetan, interpretazio bat baino gehiago onartzen dute, eta hautatu beharra dago, zirt edo zart, itzultzaileak testuingurua aintzat harturik egiten duen irakurketaren arabera. Zorionez, liburu honetan narrazioa eta elkarrizketak gailentzen zaizkie deskripzioei. Bi alderdi horietan erosoago sentitu naizela aitortu behar, deskripzioen malda pikoan ondotik arnasa berria hartzen laguntzen zidaten ordoki zelaiak bailiran.

2.- Patricia Highsmithek badu berezitasunen bat itzultzerakoan?

Esango nuke ez dela itzultzeko oso idazle zaila. Elkarrizketek pisu handia hartzen dute eta narrazioaren garapena zehazten dute. Elkarrizketek sinesgarriak gertatu behar dute, eta egiantzekotasunaren mihisiez beztitu beharra dago. Sinesgarri egiteko xede horrekin pertsonaia batzuek hika hitz egiten dute, Walter Stackhousek eta Dick Jensenek, esaterako.

Bestalde, oso estilo zuzena baliatzen duen idazlea da, eta hori dela eta nekez aurkitzen da esaldi puzturik. Estilo horren adibidea joskera dugu: mendeko perpausak ez dira bereziki zailak euskarara itzultzeko, eta narrazioaren erritmoa poliki egokitzen zaio euskararen egiturari.

Josu Barambones Zubiria

3.- Nobelaren berezitasunen bat?

Highsmithen nobela askotan bezala, bi ikuspuntu erabiltzen ditu: Walterrena eta Kimmelena, arras izaera desberdinak dituzten bi protagonistenak. Ikuspuntu bikoitz horrek aldaketak eragiten ditu narrazioaren aldarte eta erritmoan. Horrekin batera, hasieratik bertatik dakigu nor den hiltzailea; hortik aurrera, psikologia kriminalaren bilbea eratuz doa pertsonaien barne bultzadak azalerratu nahian.

Gaia dela eta, eta spoilerrik egin nahi izan gabe, nobela gehienetan erabiltzen duen gai bera erabiltzen du hemen ere. Elkar ezagutzen ez duten bi gizonak bat egiten dute lotuta dauden pertsona batengandik libratzeko. Horretarako, horietako batek krimen bikoitza (ia perfektua) egiteko plana martxan jarriko du.

4.- Nobela beltzaren zaletasunik bai? Nondik itzulpen hau egiteko animoa?

Nobela beltza gustatzen zait, baina ez naiz nobela beltzen irakurle amorratu horietakoa. Nobela beltzarekiko nire lehen akorduak zinemarekin lotuta daude, eta, zehatzago, Billy Wilderrek zuzendutako Double Indemnity filmarekin (Galbidea izenburuarekin ekarri zuen nobela euskarara Xabier Olarrak).

Geroago etorriko ziren Dashiell Hammetten Maltako belatza eta Raymond Chandlerren Betiko loa. Highsmith irakurrita nengoen. Strangers on a train nobela (eta filma) lehenengoa izan zen; gero Ripley trebea eta Ripleyren jokoa euskaraz irakurtzeko parada izan nuen Asun Garikanok egin itzulpenei esker. Idazlea ezagutzen nuen, beraz, eta The Blunderer itzultzeko egitasmoa ezagutu nuenean, ez nuen dudarik egin.





Mirande beltza



Anitz solastatu eta idatzi da Mirandez.
Gutiago, akaso,
Miranderen literaturaz.
Are gutiago Miranderen literatura
beltzaz, narrazio laburretan ageri dena:
umore beltza eta
zenbait ipuin kutsu poliziakoa dutenak,
atmosfera itogarria eta bortizkeria
irudikatzen dituztenak, kezka soziala
erakusten dutenak, pertsonaia galtzai-
lez betetakoak...
Hau dugu aukera ezin hobea irakurlea
arruntean harrapatzen duen mirandiar
unibertso beltz ezezagunean
murgiltzeko.

Mirande beltza. Solasaldia Amaia Elizalderen eskutik.
Ilbeltzaren 22an, asteazkenean.19:00. Anizko elkarte.



Bereterretxeren kanthoria zubererazko
balada da, XV. mendean taxutua. Balada horretan
oinarritua, Mikel Laboa
Katedrak enkargua egin zion Begoña Durrutyri
Laboaren
bertsioa animazio bihurtzeko. Sortutako irudi
bilduma hori bera erabili zuen gero,
komiki-liburua egiteko.

Animazio horretarako erabili zituen
paper moztuekin egindako irudien erakusketa
da hau, eta Bereterretxeren
istorioa harilkatzeko tira grafikoaren gisarat
antolatua dago.

Ilbeltzaren 13tik 26rat izanen da
erakusketa Arizkunenea kultur etxean
17:00etatik 20:00etarat



Quentin Tarantinoren mesanotxeko liburuak

Kontu jakina da Tarantinok planeta honetako kasik zinema guztia ezagutzen duela, Quien puede matar a un niño? eta Txinako mamuz betetako pelikulak barne, baina... zein dira bere literatur-erreferenziak? Ba al da, erraterako, bere lanetan Pynchon edo Salinger idazleen arrastorik?


Quentin Tarantinoren mesanotxeko liburuak.
Solosaldea Begoña del Tesoren eskutik.
Ilbeltzaren 25ean, ortziralean.19:00.
Arizkunenea kultur etxean.

Denetarako prest nago. Hiltzeko ere bai.

(Tom Ripley)

Eta zu? Zertarako zaude prest?
Hiltzailea, emakume fatala, detektibea...
Hautatu bat, **susmagarrien gauan** dena
posible baita.
Larunbatean, 18:00etatik aitzin,
Erratzuko ostatueta
barna.

BIRA produkzioen
eskutik heldu zaigu
aurtengo spota ere...
gorde sekretua !!



Mundua Iturenetik pasatu zenekoa

I966. urtean gaude. Emazteki bat lurperatu behar dute Iturenen. Familiaren hilobia ireki dutelarik, han beharko ez zuketen bi hilotz ageri dira. Guardia Zibila eta autoritateak mugitzen hasi dira, alimaleko kalapita sortu da... Nor dira hildakoak?

Ben Barka eta bere idazkaria direla zabaldu da...

Baina nor zen Ben Barka? Eta nola bizi izan zuten hura guztia Iturenen? Zer dakigu Afrikako deskolonizazio prozesuaz? Zer literatura -beltza- idatzi da horretaz? Lekukoak eta espezialista batzuk horretaz mintzatuko zaizkigu mahai-inguru honetan.

Gaur egun ere inork ez daki norenak ziren bi hilotz horiek.

Mahai-ingurua : Mundua Iturendik pasatu zenekoa.
Jon Alonso, Maribi Elizalde eta Eneko Bidegainekin
Ilbeltzaren 25ean, larunbatean.11:00.
Arizkunenea kultur etxean.


Liburu aurkezpenak.
Ilbeltzaren 25ean, larunbatean.16:00.
Erratzuko elkarteetan.



Lardaska
Patricia Highsmith
Itzultzailea :
Josu Barambones
II (H)ilbeltza
bekaren irabazlea

Bizitza ederra eta etorkizun oparoa du Walter Stackhouse abokatu gazteak: maite du bere emaztea, Clara, eta ez du zalantzarik harremanaren alde egiteko gauzak okertzen direnean ere. Itxuraz hala da, behintzat; egunkarian atera den kasu batek kitzikaturik, ordea, Walter emaztearen desagerpenarekin ameskeriatan hasiko da. Egun batetik bestera, eta trakeskeria batzuk tarteko, bai Corby detektibe tematia, bai adiskideen susmoak atzetik segika izanen ditu Walterrek, Clararen gorpua bide bazterrean agertu ondotik.

Egin ote dezake inguruan dugun jende arruntak halako basakeriarik? Zer erakarpen egon liteke horren atzean? Patricia Highsmithen thrillerrek ohi dutenez, hasieratik bertatik eleberriaren egonezin giroak harrapatuko du irakurlea, eta sakontasun psikologikoak lagunduko dio istorio ikaragarri honen bururaino, pertsonaia xeble bezain ohikoen bitartez.



Itsu kolpeka
Alfontso Gartzziandia

Urko ez da galtzaile peto bat, baina ozta-ozta gogoratzen da noiz gozatu zuen azken garaipea. Ikerlari izan nahi luke, baina gazte garaiko aurrekari penalek bidea ixten diote. Nola edo hala aurrera ateratzen du bizimodua, ikertzaile azpikontratatu baten morroi gisa, aitzak maiz leporatzen dizkionak saihesten saiatzen den bitartean.

Nadiari gaztaroa lapurtu zioten, bere jaioterrian bertan aurrenik, bizitza berri baten bila ihesbide zuen urruneko lurralde batean gero. Partida pobrea jokatzeko karta eskasak banatu dizkio bizitzak, eta, jakina denez, zaila da karta eskasekin jokaldi onik egitea... Iruñeko kale aberatsetan eta aldiriri ez hain dotoreetan, astebeteko tartean, Urkori egindako enkargu bereziak eragingo duen xake-partida tragiko bat jokatu da, eta biak, Urko eta Nadia, izanen dira, aldi berean, jokalaria eta pieza. Eta, xakean, bizitzan bezala, ezin-bestekoa da aukera egitea...

Kontrabandisten eleak

I(l)beltzan aurkezpen, mahai-inguru eta gainerakoekin burua berotu ondotik, igande goizean gorputza arintzeko aukera paregabea izanen dugu.

Amaiurtik barna itzulixka eder bat eman, eta bidenabar, Baztango biztanleen testigantzetan oinarritutako kontrabandisten pasadizoak ezagutuko ditugu. Beraiek bezalaxe baso ilunean murgilduko gara ilbeltzean, negu gordinean, eta bidelagun euria, haizea, hotza edo eguzki goxoa izan, segur egon, kontrabandisten gertaera ilunenek barnak inarrosi eta berotuko dizkigutela.

Itzuli beltza.
Kontrabandisten eleak.
Ilbeltzaren 26an, igandean.11:00.
Amaiurren.

Poesiaren kriminalak

Errezitaldi honetan adituko ditugun poesiek ezaugarri komun bat dute: denak dira nobela beltza idazten famatu diren idazleek idatzitakoak. Izzo, Camilleri, Sciascia, Vazquez Montalban... dira poemon egileak; poetak izan zirelako nobelagileak baino lehen, edo aldi berean.

Horiek denak, eta bertze anitz -Mankell, Markaris, McIlvanney, Dürrenmatt... zerrenda amaiezina da-, nobela beltza idazten zutelako egin dira ezagun publiko zabalarendako, baina idazle osoak ziren, genero guztiak landu zituztenak: antzerkia, saiakera, ipuina, kazetaritza...

Errezitaldi honek nobela beltza genero ttipia dela uste duten kritikoei erantzun nahi die; baina baita beltza baizik idatzi ez duten eta hori dela-eta baztertuta sentitzen direnei ere.

Ez dago generorik, literatura baizik.

Errezitaldia.
Poesiaren kriminalak.
Ilbeltzaren 26an, igandean.19:00.
Arizkunenea kultur etxean.

ASTELEHENA

IRURITAKO
GURE KAIOLA
ELKARTEAN

Idazleekin
Solasean

20

19:00

Horace McCoy idazlearen Hobe nuen etxean gelditu liburuari buruz Fernando Rey itzultzailearekin

ASTEAZKENA

ANIZKO
ELKARTEAN

Mirande beltza

22

19:00

Solasaldia Amaia Elizalderen eskutik

ORTZIRALEA

ARIZKUNENEA
KULTUR
ETXEAN

Quentin Tarantinoren mesanotzeko liburuak

24

19:00

Solasaldia Begoña del Tesoren eskutik

LARUNBATA

ARIZKUNENEA
KULTUR
ETXEAN

Mahai-ingurua :

Mundua Iturendik
pasatu zenekoa

25

11:00

Jon Alonso, Maribi Elizalde
eta Eneko Bidegainekin

BERRATZUKO ELKARTEAN

14:00

Bazkaria

16:00

Liburu aurkezpenak

Itsu kolpeka, Alfontso Gartziaandia
Lardaska (Patricia Highsmith), Josu Barambones
II (Hilbeltza bekaren irabazlea)

18:00

Susmagarrien gaua

IGANDEA

AMAIURREN

26

11:00

Itzuli
beltza

Kontrabandisten
eleak

ARIZKUNENEA
KULTUR
ETXEAN

Poesiaren
kriminalak

19:00

Errezitaldia

ERAKUSKETA
Bereterretxeren
kanthoria
Ilbeltzaren 13tik 26rat
Arizkunenea
kultur etxean
17:00etatik 20:00etarat



ARGIA

ttipi-
ttapa

xalotelebista

berria

Baztango
Udala

iruñeko
komunikabideak
fundazioa IKF

KARRIKIRI.eus
IRURIKO EUSKALDUNON TOPAGUNEA

BIRAPRODUKZIOAK

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

euskarabidea